

EUSKALDUNAK

tzaren Euskara izkuntza berezi-bat dala, ez dirala euskalkiak, eta baliteke arrazoa izatea, Euskalerrria berezitasunezko elkargo edo antolamendutik (pacto) sortu zala. Orregaitik gaur egunean eutsi egiten dautso leenengo sinismenari, JAINKOA ren LEGEAK bultzatu egiten gaitualako. Elburu lez? Dana dala, orren bidea daroagu arrazoiaren bidez, ez! indarkerien bidez.

Beste gauza-bat dira, zortzireun urteko erri gazte auek (nai asmakizuna Godoakandik etorri arren), Espainaren antzera, ezer'etik erri aundiak izan gura dabenak, sasi-jainko edo kaizar-zale izanda aginduan, beste erri bereziak diran'en eriotzagaz. Eta orretarako ez dago beste biderik euren elburuak lortzeko, aurrera egitea, jaio ziran egitamu-saio'rekin: lapurketa, erioztzea, guzurra, eta abar. Au-da, JAINKOA k ipini gaitun LEGE BEREZIEN aurkako eritziek.

Olan jaio ziren, eta olan irauin egiten dabe gaur egunean. Euskalerrriko seme/alabak, iñundik iñora ez dira jauzi bear curen jokoan, guzurra eta amarrukerian, orko bidetik eurok maisuak diralako, eta joku ori bear dabelako, berezitasunezko arrazoa zalantzan ezartzeko, bitartean, indarrarekin al ba dira irabazteko.

Gaiñera jakinda, Ludi onen mailla aundiko ulermenean, baietza emon dautzoela ERRI-AGINTEARI.

Biotzeko min aundia emoten dabe, daukaguzan gazte espetxeratuak, eta alegindu bear gara, dagozan lekuetatik etxera ekarteko len bait-len. Baiña ziur, gure gaur eguneko alegiñak, ez dirala eriotzak, guzurrak eta abar, euren joko dalako. Eta ortik, neurtuak izaten garalako; bai! curen indarra aundiagoa dalako.

Cure borroka, giza-barrena osatuaz da SABINOK esaten euskun-lez, arrazoiak jokatu bear dalako gaur, EUSKAL NORTASUNA ikusi dagien beste erri guztiak.

Eta ziur esango dabela OR!! EUSKALERRIA.

Arrazoa guran dago, eta zintzo jokatzen ba-dogu, benetan irabazita daukagu.

Gora euskalerrria! !

ATUTXA'tar Paul
Zornotzan 2.000' ko apirillan 22'an

SALABERRI ERTILARI

Zatoz argia nire itzera
jaun aundia aitatzeko
Aramaixoko lora ederrak
lurra argitzen dabelako,
Euskalerrriko lurralde ederra
egiz da zorioneko
mendi ta zelai guztiz da bikain
eguzkiaren begiko.

Edu ortako bazter zorian
agertzen dira loreak
batzuk zuriak usain gozoaz
gorriak ban-iz besteak,
danen artean baratz aundia
osotzen dabe maiteak
zoragarritzko ikuspegia
aidetuz gero erleak.

Ararnaiona, Aramaiona!
zentzundun giza abia
zerutik dator goi eskar ona
ta biotzen maitasuna,
izarrak izar goratzen dabe
gizadiaren almena
baserri eder zoragarriei
opalduz argitasuna.

Ez naz arritzen, poztu eiten naz
ainbeste toreen artean
giza seme bat agertuagaz
Aramioko etxean,
danak barreka maitasun pozez
izartxoaren aurrean
a zan bai poza egiazkoa
Salaberritarrencan.

Geroztik beti gurentzen joian
giza lorea zelaian
ertilaria gora ta gora
Aramaioko etxian,
txoriak kanta, zugatzak adi
eguzkiaren azpian
aurrera, beti, urretzen doa
ertilaria bidian.

Gaialagunean gorengo
agertzen da soiñulari
maisuen maisu eginda dago
abesbatzen zuzendari,
Aramaiotar aundia zara
Euskalerrriko agiri
gora ta gora ots dagoigun
gizon ertilariari.

PAULIN

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ